



## **BIZKAIKO HIPIKA FEDERAZIOA FEDERACION BIZKAINA DE HIPICA HIPIKARAKO HASTAPENAK**

Bizkaiko Hipika Federazioak agiri hau idatzi du, Bizkaiko Lurralde Historikoen Klubetarako gida gisa, Eskola Kirolean eskaintzen den “Hipikarako Hastapenak” ikastaroan hasierako oinarri batzuk finkatzeko xedearekin, hurrengo premisekin:

1. Hipika Eskola Kirolean egingo da, baina ikastetxeetan ohi bezala egiten ez den modalitatea eskaintzen dugu. Hala ere, hori ezagutarazi eta egiteko aukera izango dugu.
2. Hipikaren bidez haurrak izaki bizidun batengana hurbiltzeko aukera izango dute, zaldia, hain zuzen. Bere jatorria dela-eta ingurumeneko portaerak atxikita ditu eta jardueraren bidez garatuko dira. Gainera, eskola-orduetan edo eskolaz kanpoko orduetan egin ahal izango dira, hori guztia ikastetxe bakoitzaren eta ikastaroak eskaintzen dituen Hipika Zentroaren beharrianak kontuan izanda.
3. Aurretik azaldutakoaren arioren, hipikaren oinarria kirol-modalitate gisa ezagutarazi behar da, eta, aldi berean, zaleek kirol hori sakon ezagutu eta maizago egin behar dute.

## BALDINTZA OROKORRAK

Horrela, halako jarduerak eskaintzen dituzten klubetan giro atsegina egon beharko da, haurrak gustura egoteaz gain, segurtasun-sentsazioa izan dezaten, ordu arte ezezagunak ziren animaliekin eta ingurumenarekin harremanetan jarriko dira eta.

Gainera, zenbait kasutan haurrak zaldien beldur dira. Horien kasuan, ez dira behartu behar zaldian ibiltzera. Haurrek eurek erabakiko dute zaldian ibiltzeko unea, sarritan, ikaskideak animaliarengana hurbiltzen direla ikusita, eta beti kaskoa jantziko dute (horma-barrak aukerakoak dira) erorketetatik babesteko.

Ikastaroen iraupena 10 egunekoa izango da, eta zaldiketari nahiz zaldien zaintzari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoak jasoko dituzte. Horretarako, bideoak ikusiko dituzte eta ele bitan idatziko koadernoak eskura izango dute, zaldiaren gorputzeko atalak, hori garbitzeko modua, tresnak, arnesen osagaiak, burualdeak, aulkiak, zaldi gainetan jarri eta zalditik jaisteko modua eta antzeko azalpenekin.

Gazteenen artean, praktikak sei ikasle baino gutxiagoko taldeetan ematea gomendatzen da, eta horiek ponyen gainean eskainiko dira, betiere aukera hori emateko duten klubetan.

Zortzi urtetik gorako ikasleen kasuan, hamar ikasleko taldeetan banatuko dira.

Ikasleak taldeetan banatuko dira klase teorikoak eta praktikoak jaso ahal izateko.

Modu horretan, eskolako orduak jasangarriagoak izango dira. Izan ere, zaldian inoiz ibili ez den ikasle batentzat ordubeteko klasea amaigabea eta aspergarria izan daiteke. Zernahi gisaz, klaseko denbora bera alor ezberdinetan banatzen bada, hau da, zaldiaren atalak, elikadura, garbiketa, burdineria bezalako gaien azalpenekin, denbora hori entretenigarria eta jasangarria izango da.

## **JARDUERAK**

1. EGUNA: ponyetan eta zaldietan ibiltzeaz gain, garbiketa-tresnak ezagutu, zaldian pausoko ibili eta zaldien gainean orekari eusteko ariketak egingo dituzte.
2. EGUNA: ponyaren edo zaldiaren garbiketa, horien kaskoak garbitu eta koipeztatzea, zaldian pausoka ibiltzea eta trostan ibiltzeko hastapenak, oreka-ariketekin.
3. EGUNA: azalpen-bideoa, teoria ikasle bakoitzari emandako foiletoa oinarri hartuta, zaldian trostan ingeles erara ibiltzea eta geldiuneak egitea.
4. EGUNA: Burdineria-zona bisitatzea (jarduera hori ferratzailea klubean lanean dagoenean egingo da), zaldian pausoka ibiltzea, trostan eserita eta esku-aldaketak.
5. EGUNA: ekipoaren garbiketa, hori egiteko tresna batzuk erabiltzea, trosta orekatua eta trostan ibiltzea estriborik gabe.
6. EGUNA: zaldiaren atalak, geruza-motak, arraza ezagunenak, trostan ibiltzea estriborik gabe, bira-erdiak eta zirkuluak.
7. EGUNA: Bideoa, elikadura, teoria eta praktika, zaldian ibiltzea eta zoruan dauden barren gainetik (barrak noski) trostan igarotzea, trostan banaka ibiltzea.
8. EGUNA: ekipo-zati ezberdinen azalpena, burdin-motak (ahokoak) etab., zaldian pausoka eta trostan ibiltzea, eta lauhazkan ibiltzeko hastapenak.
9. EGUNA: ponya edo zaldia prestatzea bere gainean jartzeko, ekipoak ezarri, etab., eta zaldien gainean jarrita jolastea.
10. EGUNA: teoriaren berrikuspen orokorra, zaldian pausoka eta trostan ibiltzea, eta lauhazkan banaka ibiltzeko hastapenak.

Agiri/gida hau eredutzat joko da bai ikastetxearen beharrianak kontuan izanda bai ikastaroak eskaintzen dituzten klubetarako eraginkortasuna eta eskuragarritasuna aintzat hartuta.

\*\*\*\*\*